



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

## 2015EKO UZTAILAREN 3KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Bilera arrunta.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2015.07.03.  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.  
Zinegotziak:  
Igor Ugalde Salazar jn.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Juan M. Gonzalez Burguete jn.  
Iñigo Sarrias Zoco jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Mentxu Peña Lizarazu and.  
Ander Almandoz Indakoetxea jn.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Larreta alderdiko bidearen mugaketa.
- 3.-Udalkideen lansariak.
- 4.-Carmen Madariaga Machicote andrea: oihan probetxamendu eskaera.
- 5.-Kontseilua: diru laguntza eskaera.
- 6.-Alkatearen ebazpenak.
- 7.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2015eko ekainaren 19an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

### **2.-LARRETA ALDERDIKO BIDEAREN MUGAKETA.**

Arantzako Udalak, 2015eko maiatzaren 14an egindako bileran, erabaki zuen Larretako alderdiko mugaketa espedientearekin jarraitzea, Jose Antonio Bereau Macicior jaunak eta M. Jesus Echeverria Agesta andreak prozedura segitzeko bi baldintzak (Udalak egindako gastuak euren kargu hartzea (Jabetza Erregistroko 367,25 euroko gastua eta Goemendi S.L. enpresaren 1.210,00 euroko faktura) eta bidearen zabaltasuna 1,5 metrokoa izatea) betetzeko jarritako epean ez dutelako erantzun.

Kontuan hartuz Udalak bere kargura hartuko duela Jabetza Erregistroko gastoa (367,25 euro, BEZ barne).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Jose Antonio Bereau Macicior jaunari eta M. Jesus Echeverria Agesta andreari jakinaraztea baldintza berriak jartzen direla mugaketa espedientearekin ez segitzeko (ordezko bide berriaren zabaltasuna 1,5 metrokoa izatea eta Goemendi S.L.enpresaren fakturak euren kargura izatea) eta horren adostasuna adierazteko 2015eko uztailaren 31a arteko epea ematen zaiela. Horiek ez badira onartzen hasitako mugaketa espedientearekin jarraituko dela ohartaraztea.

2) Jose Antonio Bereau Macicior jaunari eta M. Jesus Echeverria Agesta andreari jakinaraztea, eurek nahi izanez gero, Udala prest dagoela bilera bat egiteko gaia aztertzeke, beti ere, goian aipatutako epearen barnean.

### **3.-UDALKIDEEN LANSARIAK.**

Nafarroako Gobernuak ordaindu du 2015eko udalkideen lansariak.

Kontuan hartuz legealdi berria ekainean hasi dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Kopurua erdia aurreko udalkideei ordaintzea.

2) Gaineko kopurua mahai gainean uztea denen artean aztertzeke.

### **4.-CARMEN MADARIAGA MACHICOTE ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Carmen Madariaga Machicote andreak, Aierdi alderdian, pinuen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (entresaka, 6. poligonoko 325. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Carmen Madariaga Machicote andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea.

3.) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

### **5.-KONTSEILUA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Gaia mahai gainean utzi da informazio gehiago eskatzeko.

### **6.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2015eko 47. ebazpenetik 53. ebazpena arte).

### **7.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira izan.

**Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:**



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

**8.-ARANTZAKO BESTAK.**

Ikusirik 2015eko bestetako egitaraua, 14tik 17ra, biak barne.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2015eko bestetako egitaraua onartzea.

Bertzerik gabe, gaueko 10:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn..



